



## 2. ERANSKINA

### JARDUNBIDE EGOKIAREN DESKRIBAPEN MEMORIA

Jardunbide Egokiak Aitortzeko Deialdira aurkezten diren esperientziak, jarduerak edo proiektuak baloratu ahal izateko, deskribapen-memoria bat helaraziko da. Bertan, hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da, gutxienez honako eduki hauekin:

#### Edukien aurkibidea:

1. Proiektu, jarduketa edo esperientziaren **izena**.
2. **Tokia**: non egiten den.
3. **Kolektiboa**: zer kolektibori zuzentzen zaion, sexua/generoa aldagaiaren arabera banakatuta.
4. **Ezartzea justifikatzen duten arrazoiak**:
5. **Helburuak**: helburuak (orokorrak eta zehatzak)
6. **Jarduer(ar)en deskribapena**: proiektuaren, jarduketa edo esperientziaren eta erabilitako metodologiaren deskribapena. Diseinatzea eta abian jartzea. Zer jarduera barne hartzen dituen. Eskatutako laguntzak eta jarduketa profesionalak. Erkidegoko baliabideekin koordinatzea. Praktikaren arrakasta faktore kritikoak identifikatzea. Gaur egungo egoera eta antolaketa.
7. **“Pre” eta “post” kalitate adierazleak**. Pertsonen buruzko datuak banakatuta emango dira, sexua/generoa aldagaiaren arabera.
8. **Zein alditan garatu den**: hasiera data, noiz hauteman diren aldaketa esanguratsuak, inflexio uneak. Puntuala izan daiteke ekintza jakin baterako, edo iraunkorra denboran. Proiektuaren etapak. Sekuentzian antolatutako edukien banaketa, denbora unitateetan. Egutegia.
9. **Parte hartzen duten sail, administrazio eta erakundeak**: zehaztu ea GOFEn arloek, INDESAk edo beste sail, administrazio edo erakunde batzuek parte hartzen duten.
10. **Baliabideak**: zer baliabide erabiltzen den. Giza baliabideak. Materialak. Baliabideak optimizatu eta aprobetxatzea. Zerbitzuen espezializazioa.
11. **Araudia**: proiektu, jarduketa edo esperientzia arautzen duen arautegia aipatzea.
12. **Ebaluazioa**: ebaluazio sistema eta erabilitako tresnak.
13. **Emaitzak**: lortutako emaitza nagusiak. Helburuen betetze maila. Lortutako estaldura (artatutako erabiltzaileak/pertsonak). Erabiltzaile eta parte hartzaileen gogobetetasuna.
14. **Eragina**: enplegua sortzea, populazioa finkatzea, baliabideak dinamizatzea, banako eta taldeen inplikazioa.
15. **Finantzaketa**: baliabide ekonomikoak: aurrekontua; finantzaketa; bideragarritasun plana.
16. **Ondorioak**: proposatutako hobekuntzarekin zerikusia duten ezaugarri garrantzitsuenak. Sendotasun nagusiak. Hobetzeko alderdiak. Zer egin behar den, eta zer egin behar ez denari buruzko ideia nagusiak. Zer gehiago egingo genuke, edo zer geratzen zaigu egiteko esperientziaren ondoren, hobetzen jarraitzeko?